

2017, URTARRILA 30

SARRERA	IRTEERA
	201755300000075

M. José, lagun hori:

Idazki honen bidez erantzuna ematen diot Portugaleteko Udalaren Berdintasunari buruzko Batzorde Mistoaren eskaerari, non eskatzen baitidazue genero-indarkerian inplikaturako kirolarien arazoaren inguruan nire ardurapeko erakundeak bere jarrera adieraz dezan, zehazkiago Portugaleteko Futbol Klubak Paul Abasolo jauna fitxatzeari dagokionez.

Lehenik eta behin, gogorarazi nahi nizueke Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak hedabideetan adierazi zuela jada bere jarrera jendaurrean, geroago azalduko dudan moduan, eta, orduan ere aitortu zuela egoerak ñabardura asko dituela eta, beraz, ez dela egokia jarrera manikeoak adieraztea, elkarren aurkako jarreretatik harago egin beharreko gogoeta eragotzi bailezakete

Alderdi juridiko hutsari erreparatuz, Zigor Kodearen 130.<sup>1</sup> artikuluan xedatutakoari jarraituz, Abasolo jaunaren zigor-erantzukizuna jadanik amaituta dago; beraz, kirol-klub pribatu batek baldintza horietan futbolari bat kontratatzeak ez du inolako arazo juridikorik eragiten. Halaber, ezin da ahaztu ordenamendu juridikoak pertsona guztiei bergizarteratzeko eskubidea aitortzen diela, gizartean berriro erabat txerta daitezen lortzeko.

Bestalde, fitxaketarik egokitasunari dagokionez, kontuan izan behar da kirolak berebiziko garrantzia duela gure gizarteko balioen transmisioan. Kirolariak —batez ere elitekoak— arrakastaren ikono eta eredu dira, haiek hala nahi izanda zein nahi izan gabe, eta, beraz, balioen eta printzipioen erreferente eta transmisore dira. Balio eta printzipio horiek, besteak beste, errespetua, erantzukizuna, konpromisoa, esfortzua, dedikazioa, lankidetzeta, elkarbizitza, joko garbia, berdintasuna, indarkeriarik eza eta aniztasuna izan beharko lirateke. Zoritxarrez, askotan ez dira horiek izaten futbolaren bitartez zabaltzen diren balioak, eta badirudi emaitza lehenesten dela, balioen transmisioaren gaia alde batera utzita; gai hori oso lotuta dago kasu honekin, eta gure iritziz kontuan hartu beharreko giltzarria da.

Ni ere ados nago gai hau munta handikoa dela, eta gogoeta sakona egin beharko litzatekeela horren inguruan kirol instantzia guztietan; federazioetan, klubetan eta kirolarien artean, haien erreferentzia-modeloak bereziki eredugarriak izan daitezen bizitzako arlo guztietan, bereziki gazteen artean duten eragina kontuan izanik.

<sup>1</sup> "1. Erantzukizun kriminala azkentzen da: 1. Errudunaren heriotzagatik; 2. Kondena betetzeagatik; 3. Zigorra behin betiko kentzeagatik, 87. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan xedatutakoarekin bat etorriz; 4. Indultuagatik; 5. Ofendituaren barkamenagatik, laidotuaren ekimenez jazartzen diren delituak badira edo legeak horrela aurreikusten badu. Barkamena beren beregi eman behar da epaia eman baino lehenago, eta, horretarako, ofendituak esan beharrekoa entzun beharko du epaile edo auzitegi epai-emaitzak, epaia eman aurretik. (...) 6. Delituaren preskripzioagatik. 7. Zigorren edo segurtasun-neurriaren preskripzioagatik



Horren ildotik, adibidez, Europako Kontseiluaren kirol etikaren kodea dugu. Kode horrek joko garbia du jomuga, eta balio horiek belaunaldi gazteagoei transmititzeak duen garrantzia azpimarratzen du. Nire iritziz, beharrezkoa eta premiazkoa izango litzateke esparru horretan —edo horretarako eskumena duen beste batean— gogoeta bat egitea aipatutako gaiei buruz eta etika- eta jokabide-kode bat ezartzeko aukerari buruz, baita gaiaren inguruko konpromisoak hartzea ere.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 30<sup>a</sup>

Izaskun Landaida Larizgoitia  
Directora



M. José Blanco Andrea  
Berdintasun Batzorde Mistoko presidentea  
Portugaleteko Udala

